BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1539

AGINDUA, 2019ko martxoaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Inmaculada – Hijas de Jesús» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Bilboko «Inmaculada – Hijas de Jesús» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena eskatzeko ikastetxearen erakunde titularraren legezko ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duen erakundeak horri buruzko txostena eman du.

Arau hauek hartu dira kontuan: Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa (uztailaren 4ko BOE); otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak (martxoaren 12ko BOE) aldatzen duen apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE), eta gai horretan aplikatu beharreko indarreko araudia. Horiek horrela, honakoa

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– «Inmaculada – Hijas de Jesús» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena ematen da: aurrerantzean «Jesuitinas Bilbao La Inmaculada» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua izango du izena. Ikastetxeak 48002808 kode-zenbakia du, titularra «Fundación Educativa Jesuitinas» erakundea da eta ikastetxearen egoitza Bilboko (Bizkaia) Zabalbide kalean, 141. zenbakian dago.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.